



VALENTINO TXOLARREA

Valentino txolarrea pinudi eder batean bizi zen.

Egunero-egunero, esnatu orduko, txokoz txoko ibiltzen zen, janari bila. Gorostiaren fruitua jaten zuen batez ere, bolatxo distiratsu batzuk, gorri-gorriak. Negua zetorren eta Valentinok oso lanpetuta ibili behar izan zuen, bere amak hego bat apurtu zuelako. Beraz, berak arduratu beharko zuen bere familia elikatzeaz.

Baina, goiz batean, janari bila atera zenean, ez zuen bolatxo gorri bakar bat ere aurkitu!

Oso kezkatuta itzuli zen bere habiara.

—Ama, basoan ez dago fruiturik. Manuela inurriarengana joango naiz. Ziur berak badakiela zer gertatu den.

—Susmo txarra pizten dit honek —esan zuen Manuelak—. Goazen zer gertatu den ikustera.

Manuela Valentinoren gainera igo zen eta elkarrekin herrira abiatu ziren.

Gabonetan ohitura zuten bezala, koloretako argiak jarri zituzten kaleetan, eta pinu handi bat plazaren erdian. Baina gauza batek sekulako nahigabea eragin zien!

Plazako etxe guztietan, gorostiaren fruituez egindako apaingarriak zeuzkaten leiho eta ateetan zintzilik! Basoko hegazti asko eta askoren janaria zen hori! Nori bururatuko zitzaion halako astakeria?

—Ezin dugu hori onartu! Herritarrek jakin behar dute kalte handia egin digutela, janaririk gabe utzi gaituztelako!

Basora itzultitakoan, Manuelak eta Valentinok ikusitakoaren berri eman zieten animalia guztiei.

—Badakit zer egin —esan zuen Manuelak—. Joan Idoiarengana eta esaiozu zer gertatu den. Berak asko maite ditu animaliak eta egoera konpontzeko eskatuko dio herriko jendeari.

—Baina ni txolarre bat naiz, Manuela. Ezin dut gizakiekin hitz egin; ez dute gure hizkuntza ulertzen.

—Lasai, Valentino. Bada horretarako modu bat: sartu Idoiaren ametsetan.

—Idoiaren ametsetan sartzeko?

—Bai. Gaur gauean, sartu bere etxeko ganbarako leihotik eta joan bere logelara. Jarri bere belarriaren ondoan, eta konta iezaiozu gertatu den guztia. Hala egin zuen Valentinok. Eta hurrengo egunean, Idoia, esnatu orduko, korrika joan zen sukaldera:

—Amatxori gauza bat esan behar diot! Gauza bat gaizki egin dugu!

Idoiak bere amari kontatu zion bere ametsa, eta alkatearengana joan ziren gertatutakoaren berri ematera.

—Pinudiko hegaztiak janaririk gabe utzi ditugula? Ene! Eta zer egin dezakegu orain? —galdetu zuen alkateak.

—Beharbada negu honetan ezin izango dugu gauza handirik egin —esan zuen Idoiaren amak—, baina hemendik aurrera zaindu egin beharko dugu basoa eta edozein erabaki hartu baino lehen kontuz ibili beharko dugu, inori kalterik ez egiteko.

Manuela inurriak, gordeta zeukan janariari esker, Valentinori eta bere familiari negua igarotzen lagundu zien, eta herriko jende guztiak arduratsua izaten eta natura zaintzen ikasi zuen.